

SESTAOKO UDALA

Eremu soziokulturalean Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatu eta/edo ordezkatzeko aldera, programak eta jarduerak sustatu eta garatzeko dirulaguntzen deialdiari buruzko oinarri arauemaileak.

2025ko maiatzaren 28ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz, eremu soziokulturalean Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatu eta/edo ordezkatzeko aldera, programak eta jarduerak sustatu eta garatzeko dirulaguntzen deialdiari buruzko oinarri arauemaileak onetsi dira.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradunak izan daitezke irabazi-asmorik gabe diharduten pertsona fisikoak eta irabazi-asmorik ez duten pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, eta ondasun-komunitateak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, helbidea Sestaoko udalerrian badute eta deialdi honetan adierazten diren proiektuak edo jarduerak egiten badituzte eta gainera, oinarri arauemaileek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Eskabideak Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikokoaren bidez aurkeztuko dira.

<https://www.sestao.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=5e3bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c>

Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturalekoa izango da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hori guztia jakinarazten da, aditzera emateko, eta, ondoren, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak oso-osorik ageri dira.

Alkate-Udalburua

Gorka Alvarez Martinez